

Ekainak 14.
Santi Brouard plazan
arratsaldeko 20:30etan

Andra Mari Dantza Taldea /Jean Mixel Bedaxagar eta Mixel Arotze .

Urte asko igaro dira Andra Mari Zuberoara egin zuen lehen bidaia hartatik. Orduz geroztik, Etxahun Iruri, Pier Ager Gat, Jean Pierra Rekalt, Jean Mixel Bedaxagar ... maisuak ezagutzeko eta beraiengandik Zuberoaren folkloreaken aberastasunaz ikasteko aukera izan dugu.

Jean Mixel Bedaxagar, Urdiñarben jaio zen 1953an, Zuberoan, dantzarako tradizioa zeukan sendiaratean. Dantzari bezala hasi, eta txirula jotzeari ekin zion ondoren. Askok jo izan du Garat Arhan eta Etxahun Irurirekin, maisutzat dauzkanak. 1976an kantatu zuen jende aurrean lehendabizi, eta 83an argitaratu zuen lehen diskoa, 'Xiberoa' deitua. Geroztik, ia etengabe ibili da bai plazetan, bai pastoraletan eta baita diskak argitaratzen.

Jean Mixel Bedaxagarrengandik hainbat abesti eta dantza ikasi izan ditu Andra Mari taldeak, baita une askotan plaza edota eskenatokiak partekatu ere. Beraz, berarekin (Zuberoako dantza maisuen ordezkari bezala) beste behin ere agerraldi bat ospatzea luxuzko aukera dela irudituta hor izango dira Andra Mari Euskal Dantzari Taldea, J.M. Bedaxagar eta Mixel Arotze bikotea, Santi Brouard plazan, arratsaldeko 20:30etan.



Ekainak 21.
Santi Brouard plazan
arratsaldeko 20:30-etan

Andra Mari /Ortzadar Dantza Taldea.

1974az geroztik, Ortzadar Dantza taldeak, Euskal Herriaren geografiaren hamaika toki astindu ditu, interes etnografiko handiko informazioa bilduz eta folklore bizia (zehazki, musika eta dantzen interpretazioaren alorrean) erakutsiz. Urte hauetan egindako dantza eta doinuen berreskuratze lanaren ondoren, jasotako euskal folkloreaken hedapen lanean murgildurik daude buru-belarri, eta hortarako euskal herriko bazter guztietan barrena dihardute folkloreaki, beraien neurrien arabera, bultzada berri bat eman nahian, eta hortarako jasotako dantza, musika eta musika tresna tradizionalak aurkezten dituzte.

Folklorea ulertzeko eta bizitzeko erak abiapuntu berdinetik egiten direlako beraz, Andra Mari Iruñako dantza talde honekin konplizitate berezia duela esan daiteke. Egun honetan hurbilduko direnen gozamenerako, Ortzadarreko lagunek Nafarroako maisuengandik ikasitakoa taularatuko dute, Andra Mari lagun izango dutelarik.



Ekainak 28.
Andra Mari Dantza Taldeko Iokaletan.

Jardunaldi hauekin amaitzeko, egun oso bat igaroko dugu Kepa Artetxe taldeko dantza maisuarekin, jota eta porru zaharrak ikasten alde batetik eta horien esanahi soziokulturalaren nondik norakoak jorratzen bestetik. Goizean, 11:00etatik 13:30era, dantza taldeko arduradunei zuzenduta, Jotaren eta Porruen esparru koreografikoaren nondik norako ikastaroa emango zaie. Arratzaldean, eta jende guztiari eskainita, 18:00etatik aurrera, Jota eta Porruen buruzko alde kultural, sozial eta Andra Mari Taldea dantza honen inguruan ikertzen ibili zeneko gora beherei inguruko hitzaldia izango da.

Goizeko ekitaldian, Taldeko aforoa dela eta plaza mugatuak izango dira, horregatik ahalik eta arinen izena ematea eskatzen dugu. Deitu zenbaki honetara: 639 09 82 66. Era berean ikastarora datozenak, taldeko txokoan bazkaria izango dute ikasitakoari buruz hitzegiteko abagunea sortuz).



GURE MAISUEN ITURRIETARA JOZ; GEROA BERMATUZ.

“Denborak aldatzen doaz...” dio Benito Lertxundik bere kanta batean, garai berriak etengabeko aldaketaren ondorioak direla azpimarratuz. Euskaldunok, munduko gainontzeko gizarteak bezala, aurrera joan ahal izateko datozkigun erronkeei aurre egin eta testuinguru berriei modurik eta onenean egokitzen saiatzen gara. Egun, kultur aniztasunak, norbanakoaren jokaera eredu berriak, munduaren “handitasunaren” txikitasuna, dira inguratzen gaituen testuinguruaren aldagai adierazgarrienetakoak. Ekarpen onuragarriak ekartzen dizkiguten aldagaiak ez bairik gabe, baina, arrisku berrien aurrean jarri ahal gaituztenak. Besteak beste, euskaldunoi gizarte kultural bereiztua definitzen gaituzten oinarriko baloreen galtzearen arriskua (belaunaldiz-belaunaldi, euskaldunoi euskaldun gisara adierazi gaituzten baloreen desagerketa).

Horregatik, testuinguru berri honetan, gure adierazbide kulturalen aurrean, hauen errealitateen zergatien jakitun izatea ezinbestekotzat jo du aspaldidanik Andra Mari taldeak. Erritual, jai, dantza edo kanta bat bere esanahia jakin barik ospatzea, dantzatzea edo abestea, euskara jakin gabe euskarazko testu bat irakurtzea bezalakoa delako. Folklorearen esparruaren baitan, dantza maisuak definitzen gaituzten baloreen igorleak izan dira. Beraiek, dantzen eta erritualen zergatiak eman dituzte belaunaldiz belaunaldi gaur egun arte.

Andra Mari taldeak hain beharrezkoak zaizkigun pertsona hauek goraiatu nahi ditu jardunaldi hauekin. Alde batetik beraiekin taulagainean saioa partekatuz, eta bestetik beraiengandik jasotako guregana hurbiltzen direnei helaraziz. Baita, gu bezala, tokian tokiko lanaren garrantzia ulertzen duten lagunekin, beraiek ikasitako gu ikasitakoarekin saio bateratu bat ospatuz.



GURE MAISUEN ITURRIETARA JOZ; GEROA BERMATUZ

